



HAURREN ARNAS POLIGRAFIA OSPITALEAN

ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

Arnas poligrafia loaldiaren proba bat da; funtsean, arnasa nola hartzen den lo egotean aztertzea. Zenbait parametro neurtuko dira; besteak beste, sudurreko edota ahoko aire-fluxua, zurrunka, odoleko oxigenoa eta bularraldeko eta sabelaldeko mugimenduak.

Probaren helburua zera da: haurrak loaldian arnas trastornorik ba ote duen ikustea; baldin badu, zenbaterainokoa den neurtzea; eta, hala badagokio, tratamendua agintzea.

Galdetegi bat emango dizute, eta probako gauean loarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko diezu; besteak beste, noiz oheratu den eta zenbat kosta zaion loak hartzea. Informazio hori oso inportantea da proba behar den bezala interpretatzeko.

HAURRA NOLA PRESTATU BEHAR DUZU PROBARAKO?

Aldez aurretik, harremanetan jarriko gara gurasoekin, loaren azterketa egiteko eguna finkatzeko. Proba-egunean, haurrak eguneroko gauzak egin beharko ditu. Unitatera azalduko da 21:00 aldera, afalduta. Horretaz gainera, haurrak medikaziorik hartzen badu, zeuekin ekarri beharko duzue unitatera, eta erizainari jakinarazi, berak eman diezaion. Aholkatzen dugu gurasoek dena presta dezatela gau bat etxetik kanpo pasatzera balihoa bezala (pijama, garbitzeko kutxatila...). Errazago egokitu dadin, baimena dute gurasoek edo senideek (gehienez ere, bi) harekin egoteko, proba hasi bitartean. Baina proba hastean, pertsona bakarria egongo da harekin gau guztian.

NON ETA NOLA EGINGO DIOTE PROBA?

Gurasoek umearrekin joan behar dute **LOAREN UNITATE-ra Santiago egoitzako B pabiloiko 2. solairura** aurretik adierazita dagoen orduan. Itxarongelan egon behar duzu artatua izan arte.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo. Buruan, bularraldean eta sabelaldean kable batzuk konektatuko dizkiogu, aparatu batzuei lotuta, loaren kantitatea eta kalitatea neurtzeko, eta horrek, lagunduko die medikuei gaixotasuna diagnostikatzen. Telebista kamera batzuk pizturik egongo dira denbora guztian, haurra uneoro zainduta egon dadin. Gau guztian, erizain espezializatua egongo da haurra nola dagoen gainbegiratzen. Gurasoek erizainarengana jo dezakete komunikatzeko aparatuarekin. Inportantea da langileei laguntzea, erreparatuta ea haurrak ondo ipinita dituen kable guztiak.

Biharamuneko goizeko zazpitan amaituko da proba. Kableak kentzeko orduan, bainugela eskura izango du garbitasuna egiteko. Proba amaitzean, gurasoek ziurtagiria behar badute, ate nagusian dagoen pazienteak Onartzeko Zerbitzuan eskatu beharko duzu irteteko orduan.

Probak ez du arriskurik; ez du minik ematen, eta ez da oso deserosoa, etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egitea baino ez.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Loaren azterketako gauean, orri bat emango dizute kontsulta ordua ageri duena. Kontsulta horretan, mediku batek azalduko dizkizu emaitzak, eta hark adieraziko dizu, hala badagokio, zer tratamendu beharko duen.

Gogorarazi nahi dizugu komeni dela emaitzen kontsultara haurrarekin etortzea.

